

TRENEKO GOGOETAK

Estibaliz Lizaso, 17 urte

Tolosa

Bidaiako lehen metroak amaigabeak egin zaizkit, betiko hemen geldituko nintzela uste nuen. Barnea sutan nuen, lehenbailehen atzean utzi nahi nituen leku, bizimodu eta inguratzen ninduen gutia. Baina barneagotik zetorren indar boteretsuago bat nire nahia galarazteko edozer egiteko prest zegoela zirudien. Abiadura hartu eta nire gorputz osoa trenaren trinkili-trankulu erritmikoan murgildurik sentitzean uhin lasaigarri batean bildurik aurkitu dut neure burua. Ez dago atzera egiterik, ezta gertakizunak aurreratzerik ere, orain trenaren eskuetan dago nire izate osoa, bakardadea lagun, edozein arriskutatik salbu.

Begiak itxi eta sakonki arnastu dut. Birikak tabako, kolonia, larru, oinetako busti eta beste hainbar usainen nahasketaz osaturiko airez bete eta pixkanaka-pixkanaka kanporatu dut, arnasbideetan zihoan bitartean esentzia guztiak ongi aztertu eta buruan gordetzeko ahalegin berezi bat eginez. Beti pentsatu izan dut usaimenak inguruaren hautemate berezi bat eskaintzen duela. Beste inongo zentzumenik erabili gabe hauteman ditudan usainetatik jasotako informazio hutsez nire ingurua irudikatuko banu, emaitza ez litzateke errealitatetik hain urrun egongo.

Begiak ireki eta nire aurrean bi besaulki bakarti, biluz, aurkitu ditut. Begirada okertu eta leihoak iluntasun beltz amaigabea besterik ez dit agertu, tarteka etxe bakanetako argiek ipurtargiak bailiran ziprztindurik.

Trenaren erraietatik makinen burdinazko orkestraren sinfonia amaigabearen melodia erritmikoa iristen zait belarrietara. Horren gainean ez dago ezer, isiltasuna da nagusi bagoietan, isiltasuna besterik ez. Baina isiltasun hau ez da besteak bezalako, atsegina da, trenaren giro magikoari berotasuna ematen dien mila ezaugarrietatik bat gehiago, baino aldi berean nahitaezkoa dena. Gustura sentiarazten du, zirkinik ere egin gabe goaz isiltasun ia miragarri hau ez haustearren, inork ez du hitz egiteko beharra sentitzen, hitzak baliogabe bihurtu dira eta dena esana dagoela dirudi. Horregatik, nire bizkarrean ahapeka sentitu ditudan bi adinekoen ahots dardartiek burua birarazi didate eta nire inguruan begirada azkar bat botatzeko parada eman dit honek.

Bagoia erdi hutsik doa, aurrealdean dagoen emakume gazteak begirada leihoaren iluntasunean galdurik dauka, magalean daraman haur lokartua besoekin goxotasunez inguratzen duen bitartean. Honantzago eseri diren lau gaztek, ikasleak antza, liburu lodikoteen aurrean begiak itxi ez dakizkien etengabeko borroka batean dihardute. Itxura zarpaileko gizonaeko parean lo sakonean murgildu da trena martxan jarri orduko. Bakarrik doazen beste hiru bat gorbatadunek begiak egun-

karietan murgilduak dituzte; negozio-gizonak izango dira seguru asko.

Sinestezina da bagoi bakar baten barruan zenbat jatorri, izate eta helburu ezberdin biltzen diren. Elkarren artean inongo zerikusirik ez duen jendeak trenaren metalezko horma meheek mugaturiko mundu isolatu honetako biztanle pribilegiatu bihurturik, bidaiak iraungo duen ordu gutxi bazuetarako besterik ez bada ere, euren bizitzak elkartzen dituzte, amankomunean duten bakarra helmuga soil bat izan arren. Hala ere, badirudi nire bagoian goazen dozena inguru lagunek elkarrenganako mesfidantza edo beldur moduko batek bultzaturik, ahal bezain sakabanatuen hautatu ditugula gure eserlekuak, geure intimitatea urratuko lukeen elkarriketaren bat ekiditeko asmoz ziu-rrerik.

Baliteke trenaren ahalmen ia miragarriren bat izatea, ala azken boladan begiak itxi ezinean eman ditudan gau luzeen eragina izango da agian, baina, kontuak kontu, duela minutu gutxi arte gainean pilatuak neramatzan tentsio eta nekeak nire jabe egin eta betazalek izugarrizko pisua hartzen didatela eta pixkanaka begiak ixten zaizkidala sentitua dut, goiko eta beheko betileak elkar besarkatzea eta ni loak hartzea bat izan direlarik.

* * *

Goizaldeko lehen eguzki printzek ahultasunez argitzen dute geltokia beirazko teilatua zeharkatuz. Ez dakit non nagoen, oraindik esnatu berria naiz

eta ezinezkoa zait argitasunez pentsatzea. Bagoia hutsik geratu da, eserita emandako orduen ostean, denak ere hankak luzatzeko dugun premia eserlekuen deserosotasuna salatzen hasi den seinale. Unetxo bat besterik izango ez delakoan berokirik gabe atera eta andeneko nahaste heterogeneoan murgildu naiz. Horrenbeste jendez inguraturik egon arren, inoiz baino bakartiago sentitu naiz, harrigarria badirudi ere, ia ahazturik neukan sentipena berau.

Izan ere, nire bizimoduarekin gustura nengoen, ez zitzaidan ezer falta eta maite ninduten pertsonen inguraturik bizi nintzen. Baina azken boladan nire bizitza ziklo monotono baten harrapaturik zegoela iruditzen zitzaidan eta nire barnean ezinegona sortzen hasi zen. Bizitza osoa bihotzari kasu eginez dena atzean utzi eta bizimodu berri bati ekiten dioten pertsonen bizipenak irakurtzen pasatzen dugu, baina, harrigarriro, inor gutxik hartzen du erabaki hau errealitatean. Gaztea izanik, bizitza osoa aurrean nuela jabetu nintzen eta, egia esan, denek, nik barne, niretzako aurrakusten zuten bizitzak ez zuen ezer apartekorik. Honela, bat-bateko bultzada bati erantzunez, ezinbesteko gauzak bildu eta liburuetan ezagutuak nituen ametsezko leku haiek nire begiz ikustera abiatu nintzen, nire bizitzaren gidari zen inertziari alde egin eta beronen jabe bilakatuz.

Konturatzerako Donostiako tren geltokian nintzen, eskuak gartsuki hotz nahiz urduritasunagatik igurtziz, bagoiko ateak zabaldu eta mundu berri batera sartzeko itxaropenarekin.

Orain, herri ezezagun honetako geltokian, lehenengoz bakarrik sentitu naiz, nire bidean lagunduko didan inoren babesik gabe, eta benetako adiskideen garrantziaz jabetu naiz. Geltokiek beti gordetzen izan dute nolabaiteko xarma. Elkartu hainbat pertsona banandu dituzte, poz barre adina malko biltzen dituzte haien historian eta jende guzti hauen bizitzak elkar gurutzatzen dituzte, une baterako besterik ez bada ere. Dena den, trenen abiadarekin batera munduko leku bakartienak bihurtzen dira. Geltokiak, besteak beste, jende bakartien gordeleku aproposak dira, han eserita zauden bitartean, zugar erreparatu arren norbaiten esperoan zaudela pentsatuko baitute.

Bozgorailuek abiatzea adierazi dute eta jende multzo bat treneko ateetara zuzendu da. Ez dut ezertarako denborarik izan trenetik jaitsi naizenetik, nire aurrean neukanak liluraturik, ingurura begira egon naiz denbora guztian, nire oinak lurra-ri itsatsiak baleude bezala.

Trenera igotzearekin batera giro berezi hau usain liteke, egun argitan are nabariagoa dena. Leihoetatik argitasuna sartzen da eta bidaiarien aurpegiek espresio alaiagoak dituzte, esan bezala, trenean goazen bitartean hau bilakatzen baita geure gidari, bere umorearen arabera sentituko baitugu bidaiariok bata ala bestea. Bagoiak betragoak daude, trenari bizitasuna ematen diona.

Nire eserlekuan amonaxo bat eseri da eta, luze gabe abian jarriko garenez, bere parean hartu dut lekua, lehen balantzek bota ez nazaten. Eseri ordu-

ko begirada gurutzatu dugu eta zirrara berezi bat sentiarazi dit. Txistu ozenaren ostean mugitzen hasi gara, poliki-poliki hasiera batean, baina trenak indarra hartu ahala, abiadura handituz. Hasiera batean begiak lurrera zuzenduta mantendu ditut, baina emakumearen begiak nigan jarriak zeudela sentitzean, begirada altxatzeko beharra sentitu dut.

Oinetara soilik begiratuta ere hainbat gauza antzeman ditzaket. Oinetako beltzak ditu, lokarriek korapilo indartsu batekin estuki lotuak. Takoi motzak gazte denboretako modaren aztarna dira; orain ez luke takoirik gabe ibiltzen asmatuko ziu-rrerik. Hauen gainean oinak denboraren poderioz deformaturiko oinetakoetan bildurik daude eta gorputz osoaren euskarri nekatu diren orkatila puztuak agerian daramatza. Segundo gutxi behar izan ditut gorputz moztaka aztertzeko. Lihozko gona grisari bizitasun izpi bat emanek eskuak magalean bilduta dauzka, jasandako lan gogorak zimurren azpian ezkutaturik. Azkazal motzak, pintatu gabeak, hotzaren ondorioz gorritutako azalaren gainean zuri nabarmentzen dira. Eskuz egini-ko jertse iluna ikus dezaket beroki lodiaren azpitik zelaten. Kuzkurtuta doa, hotzagatik izango da agian, edo urte luzeen ondoren pilatutako neke-
gatik akaso, baina nabaria da keinu honek ez duela inolako beldur kutsurik.

Aurpegi txiki, sudurmotz eta borobila dut aurrean une honetan. Ezpain txikiak elkartuta dauzka baina irribarre bat ezkututzen dutela esango nuke.

Bakantzen hasitako ile ahulek ez diete itzalik egiten bere begiei. Begi distiratsuak ditu, adinagatik argitu diren arren gazte denboretan ere urdinak zirela antzematen zaienak. Miresgarriak iruditzen zaizkit. Begi hauek bizitza oso ikusi dute igarotzen, baita beste asko aurretik pasatzen ere. Jaso duten guztia aurpegiko zimur bakoitzean bildu dela dirudi, adin horretara iritsi gabe lor ez daitekeen jakituria baliotsua biltzen delarik hauetan, esperientziak eta bizitzak emandako ikasgaia, hain zuzen ere.

Bat-batean amonaxo hau eta nire aurkako biribila dela otu zait. Bera atzera begira bizi da orain, dagoeneko ikusi ditu bizitza batek dakartzan gorabeherak eta ezer gutxi geratu zaio ikasteke. Nik berriz bizitza ia osoa ikusten dut aurrean eta honek suposa dezakeenaz ideiarik ere ez dut. Jakituria oso eta ezjakintasun inuzentearen ordezkaria gara, trenaren izpirituak hala nahi izan duelako aurrez-aurre jarriak.

Fisiko nahiz pentsaera erabat kontrajarriak izan arren, badugu zerbait amankomunean: geure barruan bizitzeko gogoia irakiten ari da. Komunikabideen bidez etengabe jasotzen dugun mezua da: bizitza motza da, *carpe diem*, bizi oraina. Ez dakit honen ondorio izango den ala norberak bere kabuz jaiotzetik garatzen duen bizi nahia ote den, baina denok, salbuespenak salbuespen, heriotzaren beldur garelara esatera ausartuko nintzateke.

Nire bidaiia lagunaren begiradak biluztu egiten nauela iruditzen zait. Haren begietan soma deza-

ket nire ideien jakitun dela, nire pentsamenduetan sartzeko gai dela, ulertzen nauela. Honek abantaila handia ematen dio nire gaindi eta gazteon pentsakeraren sinpletasuna datorkit burura. Baina, birritan pentsatu ondoren, ez nuke sinplea denik esango, alderantziz, garai korapilatsuena dela iruditzen zait, haurtzarotik heldu izatera iritsi bitarteko trantsizio aldia, eta behin garaia igaroa denean soilik uler daitekeen.

Bide osoan ez dugu hitz bakar bat ere gurutzatu, baina begirada hutsekin elkarrizketa bat mantendu dugu. Nire gaztetasunaren ezaugarri diren zalantza eta kezka arintzen saiatu da, ikasteko bizitza osoa behar izan dituen gauzak funtsean agertzen ahaleginduz. Neure aldetik, aspaldi ahantzia zuen ezagutzeko irrika sortarazi diodala pentsatzen dut. Biok ere gusturago gaude orain, elkarren ondoan emandako tarte luze honek uste baino gehiago gerturtu gaituelarik.

Baina bidaia bere azkenera heldu da. Trena pixkanaka-pixkanaka geratu da, bidaiariak eserlekuetatik altxa eta aterantz zuzendu dira. Ateak errealitatera itzuliko gaitu eta ordu batzuetan mundu isolatu honetako biztanle izan garenok ez gara berriro ere elkartuko.

Maleta hartu eta geltokiko istilutik aldentzen hasi naiz pauso lasaiez. Ez dut presarik, ezta helburu jakinik ere, noraezean noa nire oinek zuzentzen nauten tokira. Babes keinu gisa sudurra bufanda azpian gordez negu hotz honetan aurrera noan heinean, emandako pauso bakoitza aurrekoa

baino zailagoa egiten zaidala konturatzen naiz, bakarrik sentitzen naiz eta norbaiten beharra dut. Maite nautenen benetako garrantziaz jabetu naiz trenaren mundu magikotik jaitsi naizen bigarren aldi honetan ere. Lehenengoz zalantzan jartzen hasi naiz nire bizitzarekin egin nahi dudana hau izango ote den. Uste baino gogorragoa egingo zait nire ametsa aurrera eramatea, baina inork ez dit esan lan erraza izango denik. Argi dudan bakarra zera da, betikoa izan nahiz ezagutu berria, bidea beti ere errazagoa bilakatzen dela alboan adiskide bat denean. Mundu berriak ezagutzeko gai izango naizen ala urrun egon ondoren herriminez etxe-koengana itzuliko naizen? Ez dakit, baina probatu gabe ez dago ezer jakiterik. Izan behar duena izan bedi, denborak esango du.